

### ***KONTU-KONTARI***

#### **ITSASUKO KABALKADA GOGOANGARRIA**

Azken hamarkadan kabalkada-toberak indar handia hartzen ari dira Lapurdin eta Nafarroa Beherean. Garai zaharretako toberak bortitzak ziren, ohiko gizartetik kanpo zena modu gogorrean kritikatzeko eta jazartzen zutenak. Baina hori jakin ahantzia da, gaur kritikak modu umoretsuan egiten dira, nehor infernuko garretara kondenatu gabe. Eta herritarrek jakin dute tobera berri hori preziatzen eta maitatzen. Urtero badira toberak eta heldu diren urteetarako berriak iragartzen dira. Aurten Itsasun pasatu berria dugu, arrakasta handiaz gainera, eta Aiherrak berea jokatu du buruilaren 22an eta 29an. Beraz, badugu zer ikusi eta zertaz goza.

#### **1. Itsasuko kabalkaden historia laburra**

Itsasu beti izan da tobera edo kabalkaden herria. Jakin badakigu 1849an, 1853an, 1859an, 1865ean, 1876an, 1883an, 1892an, 1899an, 1937an, 1992an, 1994an, 1997an, 2001ean, 2007an eta 2012an kabalkada jokatu zutela, eta horietaz gain, 1889an jokatu behar zutena debekatua izan zela. Beraz, belaunaldiz belaunaldi, itsasuiarrek kabalkada-tobera egin dute eta ondorioz, ederki ezagutzen dituzte toberaren nondik no-

rakoak. Azkena, lehen erran dudan bezala, duela zazpi urte jokatu zuten, hau da, 2012. urtean. Giro horretan sortuak dira Xabier Itzaina historialari eta antropologoa, toberaren inguruan ainitz idatzi eta teorizatu duena eta Beñat Lazkano musikari eta tobera-idazlea. Erraiten ahal dugu, beraz, itsasuia-  
rren tobera-zaletasuna antzinatik datorkiela eta kabalkada jokatzeko indar handiz jarraitzen dutela.

Aurtengo kabalkada-toberaren antolakuntzan lau gazte ibili dira buru-belarri, Maiana Agerre, Joana Saint-Pierre, Patxi Laskarai eta Patxi Casenave. Lau gazte hauek bildu dituzte gainerako guztiak, dantzariak trebatu dituzte, eta Xabier Itzainaren, Beñat Lazkanoren eta Jokin Irungarai polifazetikoaren laguntzaz proiektua aitzinatu dute. Hainbat belaunaldi bildu dira proiektuaren inguruan, belaunaldi gazteak tobera zaharretan parte hartu ez zutenak, eta aitzineko toberetan parte hartutako belaunaldiak. 130 dantzari, 30 bat jokalaria, musikariak, jostunak..., zinez ikaragarria!

Bi emanaldi antolatu dituzte, lehena agorrilaren 25ean izan zen eta bigarrena irailaren 7an, eta bietan Itsasuko plaza jendez gainezka egon zen, harmailak eta gainerako xokoak leporaino bete-beteak.



*Kabalkadaren afixa*

## 2. Aurtengo kabalkadaren egitura eta ezaugarriak

Irailaren 7an, larunbatarekin, hau da, bigarren emanaldia-  
ren karira, Itsasura hurbildu nintzen hainbat adiskiderek. Arratsaldeko 4etarako jendea harmailetan jartzen hasia zen, eta 4,45etarako plaza jendez mukuru zegoen. Bostetan, ttanko, kabalkada koloretsu eta alegera plazara sartzen hasi zen. Hasieran zaldizkoak –bi marixal eta bi andere xuri– eta horien gibeletik gainerako guzti-guztiak: makilariak, oilarrak, zapurrak, banderariak, bolantak, basandereak, andere xuriak, kaskarotak, soinulariak, dantzariak, jaun jujea, jaun abokatak, uxerra eta bukatzeko zirtzil tropa galanta zozokeriak egiten. Plazan ohiko itzulia egin ondoren, *Datozkigunak* izeneko toberari hasiera eman zioten. Eguraldi ederra zen eta Baigurako eta Artzamendiko gailur, oihan eta pentzeak ezin ederrago ikus genitzakeen plazatik.

**Lehen gertaldiaren** hasieran Amets Arzalluz eta Maddi Ane Txoperena bertsolariek bazterrak berotu zituzten. Berehala dantzari trebeek ikusgarriari segida eman zioten, *Gabota* solemne batez hasieran eta *Ainboarrak* berezi batez ondoren. Bigarren dantza hori urratsik eman gabe, hau da, gogoz, egin zuten, oholtzatik plaza erdira jaitsirik ziren musikariek emanik. Osora bi arrabita, ttunttuna, xirula eta tabala.

Gertaldi honetan uxerra (Jokin Irungaraik jokaturik) Itsasuko aferak zuritu nahian ibili zen. Zirtzilak, haserreturik, inarrosi zitzaizkion.

Lehen gertaldi honetan hainbat egoera eta garai aurkeztu zituzten, aro zaharretan etorri ziren erromatarren garaietan hasiz eta iaz *Sud-mines* proiektuarekin ibili zirenekin amaituz. Erromatarrek harridura eta irriak sortarazi zituzten haien mugimendu eta hizkera bereziarekin. Alimaleko katapultak batekin ere ibili ziren jaurtigaiak botatzen.



*Zaldizko zenbait*



*Kabalkada plazara sartzean*



*Kaskarotak*



*Erromatarrak*



*Trinkete okupatua*



*Bertsolariak*



**Bigarren gertaldia** ere lehena bezain ederra eta airosa izan zen. Hastapenetan bi bertsolariek jokatu behar zena argitu ziguten eta gero dantzarien txanda izan zen. Dantzariak fandango eta arin-arin eder-ederrak eta sobera airosak zituzten dantzatu.

Gertaldi honetan Itsasun azken urteetan izan diren ikamikak ekarri zizkiguten gogora, hasieran *Balaki* trinketaren okupazioa eta gero *Marienia* izeneko lurren inguruko eztabaida. Biak gai minberak, herrian alde bateko eta kontrako iritziak eta jarrerak izan baitziren. Trinketako gaia biziki koloretua izan zen, hor azaldu baitziren gazteak eta pilotariak kapeluz eta aurpegia estalirik. Auzapeza ere galtzontziloetan agertu zen bere iritzia defendatuz. Marieneko afera ere aski gogorra izan zen, laborari eremu horretan kadirak egiteko lan-tegi bat egin nahi izan baitzuten, eta itsasuiarrak banaturik azaldu baitziren aldeko edo aurkako jarreretan. Itsasura azken hamarkadetan bizitzera etorritako kanpotarren gaia ere jorratu zuten, eta hor ibili ziren uxerra eta jaun abokatak mokoka. Hauxe zen jujeak plazaratu zuen galdera: *Itsasura bizitzera datozen kanpotiarrak hobendun bai ala ez?*



*Trinketaren okupazioa*

**Hirugarren gertaldiaren** hasieran bi bertsolariek ohiko saio ederra egin zuten eta ondoren dantzariak *Euskaldunak eta Sorginak* hasieran eta *Dantza luzea* gero airoski dantzatu zituzten publikoaren txaloaldi bero-beroak jasoz. 130 dantzari osora. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztula, ez, alajaina!

Azken gertaldi honetan kanpotiarren gaia izan zen nagusi. Hala eta guztiz ere, denbora izan zuten G7-ko bilera ospetsu horretara etorritako jauntxo-andereez irri egiteko, eta *Bizi* mugimenduaz parodiatzeko. Hainbat jaka hori ere plazara atera ziren G-7-koei aitzin egitera. Venezuelatik herrira etorritako Jim Tonik izeneko gimnastika-irakaslea ere mintzagai izan zuten, irriak eta algarak sortaraziz. Gertaldiaren bukaeran auzitegiko pertsonaien deliberoaren tenorea izan zen. Uxerrak garbi agertu zuen biziki gai zaila eta korapilatsua zela eta horregatik, delibero bateratu bat emateko orduan, ezinezkoa egiten zitzaenez, azken hitza itsasuiarren esku uzten zutela.



*Jaun Jujea eta jaun Abokatak*

Gero, bertsolarien azken agurra izan zen, aurrekoak bezain ederrak eta txalotuak izan zirenak, ondoren makilarien jokia eta parte-hartzaile guztien azken kantua, oraingo honetan Filipe Laskaraik, *Itsasoari begira* kantuaren doinuaz egina. Horra hor:

*1.- Alderik alde zilatzen duen / Errobi ibai hertzeak / Baxenabarre, Nafar, Lapurdi / josten bata ta bertzeak / lur emankorra bizi emaile / toki eder ta bortitzak, / harrespil eta etxebaratzak, / gure arbasoen batzak / aspalditik du jendea bazi / Itsasuko baratzeak. // 2.- Arrokagarai eta Atharri / mendialdeen barresi, / Atekaitz ere hauen geriza / xendera bibur ta hertsu / zintzur ederra delarik jasta, / gero denak du merezi, / Frantziako historiak ere / leiendaz dauku ebatsi / bazter kolore oro lilura / Hor zitaiken dena basi? // 3.- Iraultzan berriz dena ernegu / Herria zuen irauli / Hango legea hemen ez hobe / bemenngoak dira bali / euskal lege ta kostuma zabarren / defentsan denak gudari / libre ta berdin nabi gintuzten / kenduz dena herriari / kanpoan herritarrak gatibu / gutti ziren handik jali. // 4.- Gibelarten izokin jendeak / tiraka jana urari / Geras-to, Olasur ta Basaburun / makurturik hazka hurrari / Herrian: dantzaz gerezi puntan / ta plazan lau pilotari / Elizakoak denak sosegu / Panekau bedatzen ari. / Nola herria zaindu oraino / izan dadin laborari? // 5.- Zeru gaineko arrano soak / Itsasuren ikusmira / iduri euskal herri ttipi bat / handiaren sinadura / Euskaraz elez ta kantuz plazan / kabalkadaren harira. / Azken arnasa eman nabi nuke, / ez dadin izan itxura, / azken arnasa eman nabi nuke / Artzamendiri begira.*

Kantu eder, umoretsu eta zirrargarria bukatu bezain laster, parte-hartzaile guztiek azken itzuliari ekin zioten, zaldizkoak eta guzti. Horrela soinuaz eta dantzaz plazatik urrunduz ziren. Uxerra gilotina baten barruan zeramaten. Gaixoa! Ondoren, jendea plazatik gertu ezarri zuten ostatuaren inguruan bilduz. Bazen zer jan eta zer edan. Kabalkadako soinuariiek dantza-jauziak jo zituzten eta jende ainitz ari izan zen dantza-



ri. Gero, arratseko azken orduetan, *Kontrabanda* taldeak eskaini erromeriak amaiera goxo eman zion egunari.



*Arizaleak plazatik ateratzen*

### 3. Nire iritzia Itsasuko kabalkada-toberaz

Jakin badakigu denok, Itsasuk kabalkadak eta toberamunstrak maite dituela eta horretan aski trebe direla. 2012an eskaini zuten *Iraul Story* izenekoan ederki erakutsi zuten haien trebezia, baina oraingo honetan langa izugarri goian ezarri dutela iduritzen zait. Eta ez da nire iritzia, bakarrik, bazter guztietan eta edonoren ahotik gauza bera entzun baitzitekeen. Gaiak aski ongi jorratuak, umore handiko pasarteak, arropak eta jokoak izugarri ederrak, 130 dantzari iaio eta airos, zahar eta gazte, testua biziki ona, musikari apartak..., zer gehiago eska dakioke kabalkada bati?

Publikoa loriatua zen, irri ainitz eginik, eta dantzez, jokoez eta kantuaz liluraturik. Itsasuiarrek kabalkadak egiten maisu eta txapeldun direla, berriz ere, ontsa frogatu digute. Azken hamarka-

detan kabalkadak loraldi ederra ukan du Lapurdin eta Baxenafarroan, kabalkada eder-ederrak ikusi ditugu, doike! baina oraingo honekin kabalkadak bere gailurra jo duela uste dut nik.

Dena den, bada oraino zer egin kabalkada eta toberen arloan, dudarik gabe, eta kabalkada eder honen gibeletik etorriko direnak ildo beretik etorriko zaizkigula uste dut. Kabalkadetan xederik garrantzitsuena herritarrak euskarazko proiektu baten inguruan biltzea eta haien elkar ezagutza bultzatzea da. Hortik datorkigu kabalkadaren indarra. Laster, irailaren 22an eta 29an Aiherrako kabalkadaz gozatzeko aukera paregabea izanen dugu, eta hau ere, biziki ederra izanen delakoan nauzue.

*Joseba Aurkenerena Barandiaran  
Urruñan, 2019ko irailaren 10ean*



*Kabalkadako lagunak. Karmele Yartoren argazkia*